

KIROLDEGIKO ARAUDIA

Ikasturte berriari hasiera ematearekin batera, **Abraham Olano Kiroldegiak** **elkarbizitzarako pautak** jarriko ditu martxan.

Kiroldegiko instalazioen erabilera egokia bermatzeko, honako arauak bete beharko dira:

SARRERA ETA IRTEERA

- Kiroldegira **sartzeko zein ateratzeko, tornoa erabiltzea ezinbestekoa da**. Ez da salbuespenik egingo.
 - Tornoen bidez jasotzen diren erabiltzaileen datuak ezinbestekoak dira **kiroldegiaren zerbitzuak eta partehartzea behar bezala antolatu eta hobetzeko**. Horregatik, erabiltzaile bakoitzak dagokion sarrera eta irteera erregistratu beharko ditu.

GIMNASIOA

- Gimnasioa **16 urtetik gorako pertsonek soilik** erabili ahal izango dute.
- **Motxilak ezin dira gimnasio barruan sartu.**
- Gimnasioko makinak erabiltzean, **toaila erabiltzea nahitaezkoa da**, makinak izerditik babesteko eta gainerako erabiltzaileentzat garbi uzteko.
- Gimnasioko giroa atsegina izan dadin, **euskarazko eta herritar guztientzat egokiak diren abestiez osatutako playlist-a** erabiliko da.
 - Erabiltzaileek abesti proposamenak sarreran utzi ahal izango dituzte. Proposamenak egokiak badira, playlist-era gehituko dira.
- Gimnasioa **12:25ean eta 20:50ean itxiko da**. Orduategiak errespetatzea eskatzen dugu.

KANTXA

- Kantxa erreserbatzen duen pertsonaren ardura izango da **erabilera amaitzean espazioa txukun eta garbi uztea**.
 - Erabilitako materiala dagokion tokian utzi eta sortutako hondakinak jasotzea erabiltzailearen ardura izango da.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik eta kiroldegia guztion artean zaintzeagatik.